



ILARGIA PINTATU ZUTENEKOA

Garai batean eguzkia egunero-egunero ateratzen zen bere gordeleketik eta lur osoa argitzen zuen. Jende guztiak pozik hartzen zuen haren argia; lana egiten zuten, jolasean edota maitasunean ibiltzen ziren, egunak irauten zuen ordu haietan. Baina eguzkia ezkutatzarekin batera, iluntasuna zabaltzen zen bazter guztietan eta jendea bere etxeetan sartzen zen espantuz bete.

Izan ere, gauarekin batera gaizkile koadrila bat ateratzen zen bere zulo ilunetik eta sekulako gaiztakeriak egiten zizkien jendeari hemen eta hor. Aspertzen hasi ziren pertsonak gaizkile horien gaiztakeriez, gero eta gehiago, gero eta gehiago... eta haien haserreak gainezka egin zuenean, denak ilaran jarri eta alkatearengana joan ziren garrasi batean.

–Alkate! Guk egunez egiten dugun guztia gauetz gaizkile horiek suntsitu egiten digute. Zer edo zer pentsatu eta egin behar duzu!

–Arrazoi duzue, ni ere oso haserre nago, pentsatuko dugu gaizkile horiek nola gelditu!

Horrela, alkateak pentsatu eta pentsatu pasa zuen egun bat, gero beste bat eta hirugarrenaren bukaeran... Salto batean joan zen errementariarengana. Hari eskatu zion zilarrezko bola handi bat egin zezan, hiru egun barru berarekin soroaren ertzean elkartzeko.

Errementariak zilar puska bat hartu eta hiru egun eta haien gauak eman zituen mailuarekin, tirikitrauki-trauki, tirikirauki-trauki... zilarrari forma ematen. Hiru egunak pasa eta bola handi hura esku artean zuela, soro handiaren ertzeira joan zen alkatearengana. Han zegoen alkatea eta beste jende guztia errementariaren zain.

Harriturik geratu ziren denak bola hura hain ederra zela ikustean. Baina harrigarriago izan zen alkateak kandela bat piztu, hura bolaren barnean sartu eta zerura bidali zuenean, indar handiz. Eguzkiaren bidea hartu zuen bolak eta eguzkia sartzen zenarekin batera, bola hura ateratzen zen eta bere argi gozoa barreiatzen zen munduan.

Jendea oso pozik bizi zen modu berri hartan, egunez lana egiten zuen, ikasi eta jolastu. Gaua iristean, ilargiaren argi epelean kantari, ipuinak kontatzen eta maitasunean ematen zituzten orduak. Baina denak ez zeuden pozik. Gaizkileak marmarrean hasi ziren, beren gaiztakeriak ezin zituztelako egin, ilargiaren argipean. Halako batean, gaizkilearen buruak esan zuen arte:

–Badakit zer egingo dugun! Eskailera luze bat hartu eta ilargi ziztrin hori beltzez margotuko dugu!

Pentsatu bezala egin zuten; eskailera luze-luze bat hartu eta soroaren ertzeira joan ziren denak ilaran. Hor abiatu zen burua, eskaileretan gora eta gora, joan eta joan, eskaileraren ertzeira iritsi zen arte. Balde batean pintura beltza zeraman eta isipu handi-handi bat, haiekin ilargiaren azala beltzez pintatzeko asmoz.

Eskaileraren ertzeira iritsi zenean, hasi zen gaizkilea gorputza luzatzen eta luzatzen, ilargia harrapatu nahian. Azkenean, salto bat eman eta ilargiaren gainera iritsi zen. Baina haren saltoaren ondorioz, eskailera eta azpian zeuden beste gaizkile guztiak hankaz gora erori ziren eta gaizkileen burua hor gelditu zen, bakar-bakarrik, pintura baldea, isipua eskuetan zituela.



Zer egin ez zekiela, gaizkileen burua hasi zen ilargiaren aurpegia margotzen, eta pinta eta pinta, dena belztu zuen eta lurra iluntasunez bete zen. Orduan pasa zen gaizkilea ilargiaren atzeko aldera eta gelditzen ziren pintura apurrak barreiatu zituen, hemen eta hor, ilargiaren aurpegian. Horregatik, ilargi betea dagoenean, haren azalean ikusten ditugu mantxa beltz batzuk.

Lurrean, lehen bezala, gizonak eta emakumeak egunez bakarrik ateratzen ziren etxetik eta gaua etortzean, berriro ere ezkutatzen hasi ziren, beldurrez. Baina ilargia oso triste jarri zen ezin zuelako jendea ikusi eta haiek ikusteko ahaleginak egiten hasi zen. Indar ikaragarria eginez, jiratzen hasi zen, eta gau batean puska txiki bat, hurrengoan beste bat... hamalau egun behar izan zituen bere aurpegi osoa erakutsi arte!

Jira eta bira ibiltzearen kontua gustatu egin zitzaion ilargiari eta orduz gero ez da gelditu bere ibilbidean, eta 28 egunetan behin erakusten digu bere aurpegi osoa, hortik aurrera txikiago bihurtuko da eta berriz ere handituko da hurrengo 28 egunetan.

Eta gaizkilearen burua, han omen dabil oraindik buelta eta buelta, baten batek ikusten omen du ilargiaren azalean, ea norbaitek eskailera luze bat inguratuko ote dion lurrera, berriz ere, jaisteko.

Ilargi amandrea
Zeruan zer berri?
Zeruan berri onak
Orain eta beti



Itziar Zubizarretak moldatua